# LUR
*proiektua*

**ERAKUSKETA**
EXPOSICIÓN



**20/**
Maiatza
Mayo

**01/**
Abuztua
Agosto

*Proyecto*
# TIERRA

Alhóndiga Bilbao

JOSÉ RAMÓN AMONDARAIN
JORGE OTEIZA | FRANCISCO SÁENZ DE OIZA | JUAN DANIEL FULLAONDO
RICARDO BASTIDA
ANTONI MUNTADAS
LOTHAR BAUMGARTEN
DARÍO URZAY
OLATZ GONZÁLEZ ABRISKETA
GORDON MATTA-CLARK
EMILIO PUERTAS ARQUITECTOS
ABALOS+SENTKIEWICZ ARQUITECTOS
SANTIAGO CIRUGEDA-RECETAS URBANAS
SANAA

artea
arkitektura
zinea
antropologia
filosofia
diseinua
zientzia
hezkuntza

arte
arquitectura
cine
antropología
filosofía
diseño
ciencia
educación


LUR PROIEKTUA

**Produkzioa eta Zuzendaritza**
AlhóndigaBilbao
**Zuzendaritza artistikoa**
Alicia Chillida
**Laguntzailea**
Enric Puig Punyet

PROYECTO TIERRA

**Producción y Dirección**
AlhóndigaBilbao
**Dirección artística**
Alicia Chillida
**Colaborador**
Enric Puig Punyet


# LUR PROIEKTUA

**Lur Proiektua** erakusketa baten forma duen proiektu-plataforma bat da; espazio publikoan errotutako zuhaitz baten antzera, natura eta kultura, arkitektura eta paisaia, gizakia eta animalia, eta tokikoa dena zein globala dena, guztiak elementu kontrajarri baina, aldi berean, osagarri gisa aurkezten dira, eta guztiei buruzko ikuspegi anitza eskaintzen zaie bisitariei.

UNESCOren Biodibertsitatearen eta Kulturen arteko Harremanei buruzko Nazioarteko Urtearekin bat eginez, **Lur Proiektuarekin** elkarrizketa bati hasiera ematen zaio, hizkuntza desberdinak erabiliz: arteak, ingurumena, soziologia, filosofia, zientzia, teknologia edo antropologia, beste batzuen artean. Eta diziplina anitzeko eta parte hartzeko erakusketa batekin egin du. Horrekin lotuta, hitzaldiak, jardunaldiak, tailerrak, zinea, 2.0 web-a, argitalpenak, zein **Alhóndiga**Bilbao-ren aforoetan garatuko diren makina bat jarduera desberdin barne hartu dira.

**Lur Proiektua** espazio berri batera lotuta jaio da: Alondegi zaharraren eraikina, hain zuzen ere. Garai batean ardo-biltegi eta merkatarien topagune izan zena, gaur egun aspaldiko azokabokazioa berreskuratu du eta ideiak, esperientziak, aisialdia eta kultura trukatzeko foro gisa indarberritu da. Horrez gain, euskal kulturako bi leku enblematikorekin, plazarekin eta frontoiarekin, lotuta dago.

**Hiriaren bihotzean** dago kokatuta, Arrikibar plazan, **Bilboko Udalak sustatua** eta interesa duten pertsona guztiei irekia; jendea bertan elkartzeko eta zentroa aberasteko espazio bat izateko sortu da, **elkarrizketa, ekintza eta gogoetarako eremu emankor bat eskainiz**.

# PROYECTO TIERRA

**Proyecto Tierra** es una plataforma de proyectos que toma la forma, principalmente, de una exposición; un árbol cuyas raíces se hunden en el espacio público para ofrecer al visitante, una visión múltiple sobre la naturaleza y la cultura, la arquitectura y el paisaje, lo humano y lo animal, lo local y lo global, como elementos contrapuestos y complementarios.

Coincidiendo con el Año Internacional de la Biodiversidad y el Acercamiento entre Culturas de la UNESCO, **Proyecto Tierra** abre una conversación utilizando diferentes lenguajes: las artes, el medioambiente, la sociología, la filosofía, la ciencia, la tecnología o la antropología, entre otros. Todo ello a través de una exposición multidisciplinar y participativa, pero ligada asimismo a conferencias, jornadas, talleres, cine, web 2.0., publicaciones, así como a diferentes actividades que se desarrollarán en la totalidad de aforos de **Alhóndiga**Bilbao.

**Proyecto Tierra** nace unido a un nuevo espacio, el edificio de la antigua alhóndiga, almacén de vino y lugar de encuentro de mercaderes, que ahora retoma su vocación de mercado entendido como un foro de intercambio de ideas, de experiencias, de ocio y cultura. Vinculándolo, además, a la plaza y el frontón, lugares emblemáticos para la cultura vasca.

Un lugar en el **corazón de la ciudad**, en la Plaza Arriquibar, **promovido por el Ayuntamiento de Bilbao**, que se abre a todas las personas para que ocupando su centro lo expandan y ramifiquen, conformando **un territorio fértil para el diálogo, la acción y la reflexión**.

LUR PROIEKTUA

# Erakusketa

Maiatzaren 20tik abuztuaren 1era bitartean egongo da irekita erakusketa. AlhóndigaBilbao-k aurkezten duen ekoizpen hau lurraren kontzeptuaren inguruan antolatu da, eta gizakiarekin eta kultur forma desberdinekin duen erlazio ireki, aberats eta aurkajarriari buruz hitz egiten du.

Hamabi lan dira eta iraunkortasuna, hizkuntza, memoria, paisaia, antropologia, sormen-prozesuak edo arkitektura uztartzen dituzten ikuspegi desberdinak eta gurutzatuak aurkezten dituzte.

Besteak beste, ikus-entzunezko instalazioak eta soinu-instalazioak barne hartzen dira, eta arkitektura-ereduak, pintura, eskultura eta nazioartean izen handia duten sortzaileen bideoak, hala nola Ábalos&Sentkiewicz, SANAA, Emilio Puertas edo Santiago Cirugeda sortzaileenak; Olatz González Abrisketa antropologoarena; eta Jorge Oteiza, Francisco Sáenz de Oiza, Juan Daniel Fullaondo, Antoni Muntadas, Lothar Baumgarten, Dario Urzay, Gordon Matta-Clark edo José Ramón Amondarain artisten lanak.

**Lur Proiektua** AlhóndigaBilbao-k zuzentzen du eta Alicia Chillida da erakusketaren komisarioa. Berak sortua da Museo Ikusezina, arte garaikideko proiektuak ikertu, ekoiztu eta editatzeko plataforma bat, hain zuzen ere. Komisario independentea da Alicia Chillida. Arte Modernoaren Zentro Atlantikoaren zuzendaria izan da, bai eta Reina Sofia Arte Zentroa Museo Nazionalean Arte Garaikideko Erakusketen (MNCARS) arduraduna ere.

PROYECTO TIERRA

# La exposición

Abierta al público del 20 de mayo al 1 de agosto, la muestra, una producción de **Alhóndiga**Bilbao gira alrededor del planeta Tierra y su relación abierta, rica y contradictoria con el ser humano y las formas de la cultura.

Doce obras, plantean cuestiones entrecruzadas sobre sostenibilidad, lenguas, memoria, paisaje, antropología, procesos creativos o arquitectura a través de instalaciones instalaciones audiovisuales y sonoras, modelos arquitectónicos, pintura, escultura y vídeos de creadores de prestigio a nivel internacional como los estudios de arquitectura Ábalos&Sentkiewicz, SANAA, Emilio Puertas o Santiago Cirugeda; la antropóloga Olatz González Abrisketa; los artistas Jorge Oteiza, Francisco Sáenz de Oiza, Juan Daniel Fullaondo, Antoni Muntadas, Lothar Baumgarten, Dario Urzay, Gordon Matta-Clark o José Ramón Amondarain.

**Proyecto Tierra** es una producción realizada y dirigida por AlhóndigaBilbao y comisariada por Alicia Chillida, creadora del Museo Invisible, una plataforma para la investigación, producción y edición de proyectos de arte contemporáneo. Comisaria independiente, ha sido directora del Centro Atlántico de Arte Moderno y responsable de exposiciones de Arte Contemporáneo en el Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía (MNCARS).

## JOSÉ RAMÓN AMONDARAIN

*Izenik gabe* (2003-2010)

Instalazioa
Egilearen eskaintza

Haur parke baterako zabuaren proiektu hau osatzen duten elementu desberdinek arte garaikideari egiten diote erreferentzia, helburu bikoitz batekin: aisialdia eta hezkuntza, maila berean biak.

Instalazio-tipologia hauekin lotuta aita/amen eta seme/alaben artean agertzen diren portaerak aztertu zituen, eta lortutako ondorioak kontuan hartuta, egile honek bi lurraldeen artean mugaketa garbi bat ezartzen du.

2004. urtean aurkeztu zen Oiartzungo Udaletxean *Haurrentzako zabuaren proiektua*, Arragua auzoaren hirigintza-berrikuntzaren barruan. Hasiera batean 2.000 metro koadro inguruko azalera esleitu zitzaion proiektuari. Denboran izandako aldaketa politikoak direla eta, egin gabe dago oraindik.

80ko hamarkadaren azken urteetan jaso zituen José Ramón Amondarain euskal artistak lehen sariak eta aitorpenak, bere lanarengatik. Euskal artista honek irabazitako sari garrantzitsuenen artean, Bizkaiko Artea-n eta Gipuzkoako Artista Berrien Lehiaketan irabazitako lehen sariak aipa daitezke. 90eko hamarkadaren hasieran hainbat beka irabazi zituen bere lanarekin jarraitu ahal izateko. Horietako bat Endesa Taldeak Arte Plastikoetarako emandako beka izan zen. Nazioko zein nazioarteko artezentroetan eta museoetan erakutsi ditu lanak, eta bere lan asko eta asko ikus daitezke erakunde publiko zein pribatuen bilduma garrantzitsuen barruan.



## JOSÉ RAMÓN AMONDARAIN

*Sin título* (2003-2010)

Instalación
Cortesía del autor

Los diferentes elementos que componen este proyecto de columpio para un parque infantil están referidos al arte contemporáneo con un doble objetivo, lúdico y educativo, a un mismo nivel.

Los estudios previos realizados para el análisis de los comportamientos que se observan entre padres/madres e hijos/as en esta tipología de instalaciones han llevado al autor incluso a generar una demarcación entre ambos territorios.

El proyecto de *Columpio para niños* se presentó en 2004 al Ayuntamiento de Oiartzun, como parte de la renovación urbanística del barrio de Arragua y para el que estaba destinado un terreno de cerca de 2.000 metros cuadrados. Como consecuencia de una serie de cambios políticos, permanece sin realizarse.

El artista vasco José Ramón Amondarain recibe a finales de la década de los 80 sus primeros reconocimientos entre los que destacan los dos primeros premios en el Bizkaiko Artea y en el Certamen de Artistas Noveles de Gipuzkoa. A principios de los 90 obtiene becas para continuar con su obra. Una de ellas, la del Grupo Endesa para Artes Plásticas. Ha expuesto a nivel nacional e internacional en centros de arte y museos y parte de su trabajo forma parte de importantes colecciones de organismos públicos y privados.



## JORGE OTEIZA, FRANCISCO JAVIER SÁENZ DE OIZA, JUAN DANIEL FULLAONDO

*Alhondigako kuboa* (1988)

Maketa eta bideo-emanaldia. Bilboko Udalaren eta Jorge Oteiza Fundazio Museoaren eskaintza

## RICARDO BASTIDA

*Alondegi eraikina* (1909)

Planoak eta dokumentuak
Bastida familiaren eta Bilboko Udalaren ondarea

1988an, Bilboko udalak, Jorge Oteiza eskultorea gonbidatu zuen, Alondegi zaharra eta Santiago Apostol ikastetxearen orubea berrerabiltzeko proiektu batean parte har zezan. Ekimen horrekin bat egin zuten Juan Daniel Fullaondo eta Francisco Javier Sáenz de Oiza arkitektoek, eta Ikerketa Estetikoen Institutua izango zena diseinatzen hasi ziren.

**Jorge Oteiza** (Orio, 1908 – Donostia-San Sebastián, 2003) Euskal Herriko artista garrantzitsueneko bat da. Donostian ekin zion bere ibilbide artistikoari, 1920. urtearen inguruan, hiri horretan kultur abangoardia garatzen eta osatzen ari ziren gazteekin harremanetan jartzean.

Oteizaren lehen eskultura-lanetan kubismoaren eta primitibismoaren eragin handia ikus daiteke. Estetikari buruzko erreferentziazko hainbat liburu idatzi zituen, *Aldaketen legea*, edo *Quousque Tandem*, esate baterako.

**Francisco Javier Sáenz de Oiza** (Cáseda, 1918–Madril, 2000), 1946an lizentziatu zen Arkitektura Eskolan. 1947an Amerikako Estatu Batuetara joan zen, San Fernandoko Arte Ede-



## JORGE OTEIZA, FRANCISCO JAVIER SÁENZ DE OIZA, JUAN DANIEL FULLAONDO

*El Cubo de la Alhóndiga* (1988)

Maqueta y proyección en video. Cortesía del Ayuntamiento de Bilbao y Fundación Museo Jorge Oteiza

## RICARDO BASTIDA

*Edificio de la Alhóndiga* (1909)

Planos y documentos
Legado de la Familia Bastida y Ayuntamiento de Bilbao

En 1988, el Ayuntamiento de Bilbao, invitó al escultor Jorge Oteiza a participar en un proyecto de reutilización de la antigua Alhóndiga y del solar del colegio Santiago Apostol. Una iniciativa a la que se unieron los arquitectos Juan Daniel Fullaondo y Francisco Javier Sáenz de Oiza, para diseñar lo que debía ser el Instituto de Investigaciones Estéticas.

**Jorge Oteiza** (Orio, 1908 – Donostia-San Sebastián, 2003) es un artista fundamental para la cultura vasca. Inició su actividad artística en el San Sebastián de los años veinte, en contacto con los jóvenes que desarrollaban la vanguardia cultural en esta ciudad.

Las primeras obras escultóricas de Oteiza están fuertemente influenciadas por el cubismo y el primitivismo. Autor de libros de referencia en el campo de la estética como *La ley de los cambios*, o *Quousque Tandem*.

**Francisco Javier Sáenz de Oiza** (Cáseda, 1918–Madrid, 2000), licenciado en la Escuela de Arquitectura en 1946. Viajó a Estados Unidos en 1947 para ampliar sus estudios becado por la Academia de Bellas Artes de San

rren Akademiaren beka batekin, bere ikasketak zabaltzera. Handik itzultzean unibertsitatean jardun zuen irakasle gisa eta 1962an lortu zuen katedra. 1981etik 1983ra eTsam-eko zuzendari izan zen. Berak egindako eraikin enblematikoenen artean aipa-tzekoak dira, Arantzazuko Santutegia; Madrilgo Dorre Zuriak eta Oteiza Museoa, bera hil ondoren gauzatu zena.

**Juan Daniel Fullaondo** (Bilbao, 1936-1994) Saénz de Oizaren lankide gisa hasi zen arkitekturaren munduan murgiltzen. 1962an Arkitektura Sari Nazionala irabazi zuen, Bilboko Mazarredo zumarkaleko etxebizitzetan egindako lan bikainagatik. 'Oteiza (1933-88)' liburua argitaratu zuen eskultorearen beraren laguntzarekin.

Fernando. A su regreso ejerce como profesor universitario, obteniendo una cátedra en 1962. De 1981 a 1983 es director de la eTsam. Entre sus edificios más emblemáticos están el Santuario de Nuestra Señora de Aranzazu, las Torres Blancas de Madrid y el Museo Oteiza, su obra póstuma.

**Juan Daniel Fullaondo** (Bilbao, 1936-1994) da sus primeros pasos en la arquitectura como colaborador de Saénz de Oiza. En 1962 recibe el Premio Nacional de Arquitectura y destaca por su trabajo en las viviendas de la Alameda de Mazarredo en Bilbao. Publica el libro 'Oteiza (1933-88)' en colaboración con el escultor.



## ANTONI MUNTADAS

*On Translation: Jai Alai* (1994-2010)

Audio-instalazioa
Egilearen eskaintza

1994ko abuztua. Antonio Muntadasek Hiriko Esku Hartzeei buruzko tailer batean parte hartu zuen Arteleku-n eta interes handia erakutsi zuen Frontoia "esanahiez betetako testuinguru-espazio" gisa ulertzen zuen proiektu batean lan egiteko. Audioa aukeratu zuen, horren bitartez "materialen pertzepzioa, espazioaren beste ikuspegi bat eta hainbat emozio eta errealitate" islatzeko. Guztiarekin, eguneroko bizitzaren metafora bat zein errealitatea bera islatzen dituen atmosfera bat osatzea lortzen du. Lehen grabaketa abuztuaren 19an egin zuen Galarreta frontoian (Hernani, Gipuzkoa).

Antoni Muntadasek (Barcelona 1942) Arte Ederren Urrezko Domina du eta Velázquez Saria irabazi zuen 2009an. Diziplina anitz ukitzen dituen artista bat da eta bere lanetan gai sozialak, politikoak eta komunikaziozkoak uztartzen ditu, eta espazio publikoaren eta pribatuaren arteko erlazioa erakusten du, halaber. Bere proiektuak New York-eko MoMa museoan, Kaliforniako Berkeley Art Museum-ean edo Reina Sofia Arte Zentroan egon dira ikusgai. Hainbat bitarteko baliatu ditu egile honek lan egiteko, besteak beste: argazkiak, bideoa, argitalpenak, Internet, instalazioak eta hiri-espazioetako esku-hartzeak.



## ANTONI MUNTADAS

*On Translation: Jai Alai* (1994-2010)

Instalación de audio
Cortesía del autor

Agosto 1994. Antoni Muntadas participa en un taller de Intervenciones Urbanas en Arteleku y se siente atraído por trabajar en un proyecto a partir del Frontón, como "espacio contextual cargado de significados". Como medio elige el audio capaz de reproducir "una percepción de los materiales, otra dimensión del espacio y una serie de emociones y relaciones" creadoras de una atmósfera que sirve tanto de metáfora como de realidad de la vida cotidiana. La primera grabación tendría lugar el 19 de agosto en el frontón Galarreta (Hernani, Gipuzkoa).

Antoni Muntadas (Barcelona 1942) es Medalla de Oro BB.AA y Premio Velázquez (2009). Es un artista multidisciplinar cuya obra aborda temas sociales, políticos y de comunicación, así como la relación entre el espacio público y privado. Sus proyectos, que han sido expuestos en el MoMa de Nueva York, el Berkeley Art Museum de California o el Centro de Arte Reina Sofía, entre otros, están desarrollados en distintos medios como fotografía, vídeo, publicaciones, Internet, instalaciones e intervenciones en espacios urbanos.

## LOTHAR BAUMGARTEN

### *Kaimana: sudur zuria* (1970-2010)

Instalazioa: audioa duen ibilgailua

### *Hatsa* (2010)

Paper gaineko horma-irudia
Egilearen eta Marian Goodman Gallery-ren eskaintza

Lothar Baumgartenen proiektuetan etengabe aztertzen da mendebaldeko adierazpen-sistemen azpiegituren azpian ezkutatzen den logika. Instalazio honek 30 urtetan baino gehiagotan naturan hartutako audio-erregistroak eskaintzen ditu, *Hatsa* olerkiarekin batera. Lan grafiko honetan, forma duten zeinuak eta “hitzak soinuaren forma gisa” iradokitzen zaizkigu. Irudi bihurtzen diren hitzak eta paisaia mugatzen duten izenak.

Veneziako Biurtekoaren 41. edizioan Urrezko Lehoia irabazi zuen *Amerika Jaun Naturalak* (1984) lanarengatik, eta Lichtwark saria irabazi zuen 1996an. Bere proiekturik berrienetan, hala nola *Autofocus, Retina* edo *Seven Sounds, Seven Circles*, naturaren eta kulturaren arteko elkarrizketa dramatikoari buruz hitz egiten digu.



## LOTHAR BAUMGARTEN

### *Caimán: nariz blanca* (1970-2010)

Instalación: vehículo con audio

### *Aliento* (2010)

Póster sobre papel
Cortesía del autor y de Marian Goodman Gallery

Los proyectos de Lothar Baumgarten exploran constantemente la lógica que se esconde bajo las estructuras de los sistemas occidentales de representación. Su instalación, un vehículo con registros de audio en la naturaleza a lo largo de más de 30 años, se unen al poema *Aliento*, obra gráfica que remite a los signos que poseen forma y a las “letras como forma del sonido”. Palabras que se convierten en imágenes y nombres que delimitan el paisaje.

Galardonado con el León de oro en la 41ª edición de la Bienal de Venecia, por *América Señores Naturales* (1984), y Premio Lichtwark en 1996, sus proyectos más recientes, como *Autofocus*, *Retina* o *Seven Sounds, Seven Circles*, indagan en torno al diálogo dramático entre naturaleza y cultura.



## DARÍO URZAY

### *Phaistos* (2010)

Pintura: teknika mistoa aluminioaren gainean. Kobre grabatua
Egilearen eskaintza

Argazkilaritzaren eta pinturaren artean dauden mugak eta irudi digitalaren, birtualki erreferenterik ez duenaren, eta bitarteko teknologiko berriak baliatuz errealitatea irudikatzeko modu berrien artean daudenak ikertzea eta aztertzea, Darío Urzayren lanaren zati dira.

**Phaistos**-eko hondakinetatik ibiltzean gaur egun jatorrian zegokion funtzioa galduta duen antzinako eraikuntza-antolamendu zaharraren hondarrak ikus daitezkeela gogoratzen du egileak. Osotasun bat izan zenaren zatiak. Eta zati horiekin jokatzen du, irudiak manipulatzeko ematen dizkion berezko aukera guztiak edo ordenagailuak ematen dizkionak baliatuz.

Darío Urzay (Bilbao, 1958), margolaria, argazkilaria eta artista plastikoa da eta mundu osoko galeria eta arte-zentroetako erakusketetan parte hartu du bere lanekin. 2005ean Arte Grafikoaren Sari Nazionala eta Beijing-eko Biurtekoan Excellent Work Award saria irabazi zituen.



## DARÍO URZAY

### *Phaistos* (2010)

Pintura: técnica mixta sobre aluminio. Cobre grabado
Cortesía del autor

La exploración de los límites entre la fotografía y la pintura, entre la imagen digital, virtualmente carente de referente, y la representación de lo real a través de nuevos medios tecnológicos forman parte del trabajo de Darío Urzay.

El autor rememora que al transitar por las ruinas de **Phaistos** se pueden observar los restos de un antiguo orden constructivo que ha perdido su función original. Fragmentos de lo que fue un todo. Y juega con esa fragmentación a través de las posibilidades de manipulación de la imagen, tanto las que le son propias, como las que permite el ordenador.

Darío Urzay (Bilbao, 1958), es un pintor, fotógrafo y artista plástico que ha participado en exposiciones en galerías y centros de arte de todo el mundo. En 2005 recibió el Premio Nacional de Arte Gráfico y el Excellent Work Award en la Bienal de Beijing.

# OLATZ GONZÁLEZ ABRISKETA

*Animalia* (2010)

Bideo dokumentala
Egilearen eskaintza

Naturaren eta kulturaren arteko dikotomiaren berrikuspen garaikidea egiten da *Animal* lanarekin, eta animalien eta gizateriaren arteko erlazioak nola ikusten eta bizi ditugun erakusten zaigu. Zentzu horretan, errealitatea eraikitzeko lehen bitartekoa animaliak direla ulertzera ematen digu egileak.

Olatz González Abrisketa, EHUko antropologia-irakaslea eta *Pelota Vasca: un ritual, una estética* liburuaren egilea da eta berak zuzendu zuen *Jorgen Leth on Haiti* dokumental saritua. Dokumental hori Jorgen Leth zinemagile daniarrari buruzkoa da eta kolonialismoaren ondorengo exotismoa eta ideiak gogoratzen eta ezagutzera ematen ditu, besteak beste.

Darío Urzayk eta Olatz González Abrisketak *Pelota* filma aurkeztuko dute AlhóndigaBilbao-ko Lur Proiektuaren Zinema-zikloaren barruan.



# OLATZ GONZÁLEZ ABRISKETA

*Animal* (2010)

Vídeo documental
Cortesía de la autora

A través de una revisión contemporánea de la dicotomía entre naturaleza y cultura, *Animal* rescata imágenes e intuiciones acerca de cómo pensamos y vivimos las relaciones entre los animales y nuestra propia humanidad, partiendo de la idea de que aquellos son uno de los primeros recursos para la construcción de la realidad.

Olatz González Abrisketa, profesora de antropología de la UPV y autora del libro *Pelota Vasca: un ritual, una estética*, es directora del galardonado documental *Jorgen Leth on Haiti* sobre la vida de este cineasta danés que se convierte en un acercamiento a cuestiones como el exotismo y los imaginarios postcoloniales.

Darío Urzay y Olatz González Abrisketa presentarán el film *Pelota* dentro de Ejes, Ciclo de Cine de Proyecto Tierra de AlhóndigaBilbao.



# GORDON MATTA-CLARK

*Splitting* (1974)

Super 8 filma bideoan

*Bingo-Ninths* (1974)

Super 8 filma bideoan

Gordon Matta-Clark artista eta performer-a etxebizitza deseraikitzen eta eraikuntza-ereduak zatitzen eta aztertzen erakusten duten bi filmaketa dira *Splitting* eta *Bingo-Ninths*. Dokumental baten ikuspegitik, espazioaren nahastea eta kontzeptuzko pertzepzio eraldatua erakusten ditu egileak, eraikinetan egindako ebakien bitartez.

Grabitatearen ukazioa, barrualdearen eta kanpoaldearen arteko nahasketa... bere filmak eta bideoak artistikoki diseinatuta daude baina, era berean, garatzen duen sormen-prozesua erakusteko baliatzen ditu, eta esperientzia ahalik eta sentikorrena erakutsi nahi du. Muga orori aurre eginez, artistaren gorputzak goitik behera nahasten du munduko ordena, hiri-espazioaren ikuspegi berri bat islatzeko.

Gordon Matta-Clark New Yorken jaio zen. Ithaca-ko Unibertsitatean arkitektura ikasi zuen eta literatura Pariskoan. Azkenean arkitekto-lanean jardutea erabaki zuen. Artista gisa, XX. mendearen azken hereneko obra-corpusik konplexuena sortu zuen, 1970 eta 1978 artean. Artista poliedrikoa, energetikoa, dinamikoa eta harrigarria da eta oinarrizkoa pop mugimendu minimalista eta kontzeptuzkoan; espazio publikoaren barruan esperientziak sortzen eta sustatzen egile bikaina izan zen.



# GORDON MATTA-CLARK

*Splitting* (1974)

Película Super 8 en video

*Bingo-Ninths* (1974)

Película Super 8 en video

*Splitting* y *Bingo-Ninths* son dos filmaciones en las que el artista y performer Gordon Matta-Clark de-construye casas y disecciona el modelo de construcciones. Con una mirada aparentemente documental capta la desorientación espacial y la percepción concepcional alterada mediante cortes realizados en edificios.

Negación de la gravedad, confusión entre interior y exterior, sus películas y videos están diseñados como una forma artística en si misma, pero también como una explicación de un proceso creativo que se acerca lo más posible a la experiencia sensible. Desafiando todo límite, el cuerpo del artista desbarata el orden del mundo para dar una nueva visión del espacio urbano.

Gordon Matta-Clark, nacido en Nueva York, estudió arquitectura en la Universidad de Ithaca y literatura en París, pero decidió no ejercer de arquitecto. Como artista desarrolló entre 1970 y 1978 el corpus de obra más complejo del último tercio del siglo XX. Artista poliédrico, energético, dinámico y explosivo que está en la base del movimiento pop, minimalista y conceptual, fue un gran generador y precursor de experiencias en el interior del espacio público.

## EMILIO PUERTAS ARQUITECTOS

*Erriberako merkatua: birgaikuntza integraleko proiektua* (2008-2011)

Planoak, dokumentuak eta maketa
Bilboko Udalaren eta egilearen eskaintza

Erriberako Merkatua berritzeko eraikuntza-prozesuaren erdia garatu da jada. 1929an egin zuen merkatua Pedro Ispizua arkitekto bermearrak.

Emilio Puertas Arquitectos estudioaren birgaikuntza-eraldaketa hau kirurgiara hurbiltzen den esku-hartze gisa aurkezten da. Gauzak horrela, xehetasun osoz erakusten eta erantzuten dira proiektu honen zergatiak. Azken finean, eraikin horrek, hiribildua sortu zenetik, merkatu gisa bete duen lan handia eta izan zuen ospe handia berreskuratu nahi dira. Errealitatean murgiltzen da, “arkitektoen lan orotan iradokitzen den joera artistiko-formalista” alboratuz.

Emilio Puertas arkitektoa Basurtuko Ospitalearen birgaikuntzaz arduratu zen ekipoko kide da eta bere lan garrantzitsuenen artean honako hauek aipa daitezke: Arrigorriagako udaletxe berria, Beurko auzoaren birmoldaketa eta Barakaldoko Justizia Jauregia, edo Bilbo Zaharreko Miribilla esparruaren urbanizazioa.



## EMILIO PUERTAS ARQUITECTOS

*Mercado de la Ribera: proyecto de rehabilitación integral* (2008-2011)

Planos, documentos y maqueta
Cortesía del Ayuntamiento de Bilbao y del autor

La renovación del Mercado de la Ribera, un edificio de 1929 del arquitecto bermeano Pedro Ispizua, ha alcanzado el ecuador de su proceso constructivo.

Una rehabilitación-transformación de Emilio Puertas Arquitectos que es presentada como una intervención próxima a la cirugía. De esta forma se muestra, detalle a detalle, el cómo que responde a una constelación de porqués, cuyo objetivo final es que este edificio recobre con todo el vigor la actividad de mercado que ha venido realizando desde el origen de la Villa. Una inmersión en la realidad que huye de la tentación “artístico-formalista” que “tan seductoramente suele estar presente en el trabajo de arquitecto”.

El arquitecto Emilio Puertas forma parte del equipo que remodeló el Hospital de Basurto y tiene entre algunas de sus obras más destacadas el nuevo Ayuntamiento de Arrigorriaga, la remodelación del Barrio de Beurko y el Palacio de Justicia en Barakaldo o la urbanización del Área de Miribilla, en Bilbao la Vieja.



## ÁBALOS+SENTKIEWICZ ARQUITECTOS

*Parke bertikala* (2010)

Instalazioa, maketak, dokumentuak eta bideo-emanaldia
Egileen eskaintza

Ábalos+Sentkiewicz estudioak egindako *Parke Bertikalak* modu bikainean bateratzen ditu arkitektura, paisaia eta ingurumena. Era berean, arkitekturaren ikuspegi “termodinamikoaren” aurkezpena eta azken gorpuztea da eta aipatutako hiru diziplinak elkartuz, espazio publikoaren eta monumentuaren ideia berri bat osatzen du.

Egitura bertikal hori, azken finean, entitate berri bat da, aisialdiaren pertzepzio eta kontzeptu berri bati lotuta egin den parke berri bat da, eta berari esker, elkarrizketa berriak izango dira gizakien eta ez-gizakien artean eta gauzen “antolamendu” berri bat sortu ahal izango da.

Iñaki Ábalosek eta Renata Sentkiewiczek modu bikainean bateratzen dituzte kalitatea, berrikuntza eta integrazioa, eta izaera bereziko obrak eta proiektuak garatzea lortu dute, esparru publikoan zein pribatuan. Egile hauek egindako lanak alderdi sinboliko eta kultural berri bat dakarkie indartzen ari diren gizarte- eta ingurumen-balioei, eta azpimarratzekoak dira gorakako eraikinen diseinuan, kultur ekipamenduetan, espazio publikoetan eta bizitegi kolektiboetan egindako diseinuak.



## ÁBALOS+SENTKIEWICZ ARQUITECTOS

*El parque vertical* (2010)

Instalación, maquetas, documentos y proyección de vídeo
Cortesía de los autores

El *Parque Vertical* con la firma de Ábalos+Sentkiewicz destaca por su capacidad de integración disciplinar entre arquitectura, paisaje y medioambiente. Es a su vez origen y cristalización final de una comprensión “termodinámica” de la arquitectura, que funde las tres disciplinas en una nueva idea de espacio público y monumento.

Esta amalgama vertical es en definitiva una nueva entidad, un nuevo parque ajustado a una nueva percepción y a una nueva noción de ocio, una entidad que permitirá establecer nuevos diálogos entre los humanos y los no humanos y levantar un nuevo “parlamento” de las cosas.

La confluencia de calidad, innovación e integración que muestran Iñaki Ábalos y Renata Sentkiewicz les ha permitido desarrollar obras y proyectos de naturaleza singular tanto en el ámbito público como privado. Su trabajo aporta una nueva dimensión simbólica y cultural a los valores sociales y ambientales emergentes y destaca en el diseño de edificios en altura, equipamientos culturales, espacios públicos y residencia colectiva.

## SANTIAGO CIRUGEDA-RECETAS URBANAS

*Etxe bat nahi dut!* (1997-2010)

Collage multimedia. Egilearen eskaintza

*Eraikin desmontagarria* (2010)

HD bideoa. Egilearen eskaintza

Etxebizitza-eskubidearekin lotuta *Etxe bat nahi dut!* gerra-oihua aukeratu du egileak oraingoan. 1997an garatutako dokumentuak eta proiektuak oinarrian hartuta egindako sorkuntza bat da. Besteak beste, etxebizitza babestuaren eraikuntza-aurreikuspenak aztertzen dira, eta behar errealekin alderatzen dira, herritar guztiak etxebizitza-eskubidearen urraketa salatzera animatu nahian.

1971n jaio zen Sevillano. Lege-hutsuneak ikertzen ditu arkitekto honek, erkidegoari laguntzeko. Bere lan nagusien artean, altzari-arkitekturaren bitartez orubeak betetzeko hainbat lekutan egindako aprobetxamendua aipa daiteke: *Casa-rompecabezas* (Sevilla 2002-2003), Acción Arteleku-n (Donostia-San Sebastián, 2004-2005), *Peñón de Gibraltar* (2004-2005), *Basauri+Matrix* (Bilbo 2005-2007), *Lurralde Berreskuratzea* (Fuerteventura, 2007), *Zubi bizigarria elizaren gainean* (Linz, 2008) eta *Goi Tentsioko eraikinaren birziklapena* (Olmeda de la Cuesta, 2009).



## SANTIAGO CIRUGEDA-RECETAS URBANAS

*!Quiero una casa!* (1997-2010)

Collage multimedia. Cortesía del autor

*Edificio Desmontable* (2010)

Video HD. Cortesía del autor

Mediante el grito de guerra sobre el derecho a la vivienda *Quiero una casa!* constituye una instalación a partir de documentos y proyectos desarrollados desde 1997, que, entre otras propuestas, estudian un caso de previsiones de construcción de vivienda protegida y su comparación con las necesidades reales, para animar a la ciudadania a denunciar su incumplimiento.

Sevillano, nacido en 1971, este arquitecto investiga los vacíos legales en beneficio de la comunidad. Entre sus principales obras se encuentra el aprovechamiento de la ocupación de solares con arquitectura mobiliaria como la *Casa-rompecabezas* (Sevilla 2002-2003), Acción en Arteleku (Donostia-San Sebastián, 2004-2005), *Peñón de Gibraltar* (2004-2005), *Basauri+Matrix* (Bilbao 2005-2007), *Recuperación del territorio* (Fuerteventura, 2007), *Puente habitable sobre una iglesia* (Linz, 2008) y *reciclaje de edificio de Alta Tensión* (Olmeda de la Cuesta, 2009).



## SANAA

*Serpentine Gallery* (2009)

*Moriyama etxea* (2002-2005)

Maketak
Instalazioa. Egileen eskaintza

Serpentine Gallery-ko pabilioiaren aluminiozko sabai mugikorrak kanpoan sortzen duen espazioak, esperientzia erabat berria bizitzeko aukera ematen du, parkearekin lotuta egonik ere.

Sabai mugikor horrek, estalki lana egiteaz gain, inguruko zuhaitz guztiak babesteko balio du zabaltzen denean. Altuera desberdinetan diseinatuta dago eta, horri esker, mahai bat osa daiteke ia lurreraino iristen den hegoetako bat baliatuz. Haatik, beste zati batzuk goratuta daude, barruko espazioak haizetik edo euri-zaparradetatik babesten direlarik. Sabaiaren bi aldeak islatzaileak dira; horrela, zerua islatzen da goitik eta parkea behetik.

*Moriyama Etxea* Tokioko zona tradizionalean dago kokatuta. Hamar bolumen independente dira, bakoitza behar bati erantzuteko, eta atmosfera propioa duen erkidego txiki bat eta paisaia bat osatzen dute.

SANAA 1995ean jaio zen, gaur egun bere kideak diren Kazuyo Sejima eta Ryue Nishizawa-ren ekimenez. Ordutik makina bat arkitektura-proiektutan lan egin dute mundu osoan. Guztietan ingurune bakoitzerako soluzio egokiak lortzeko lan egin dute, saiakuntza alboratu gabe, noski. Zentzu horretan, alderdi praktikoaren eta argi, elementu eta espazioen hierarkia, mugimendu, jarraikortasun edo zurruntasunaren arteko koherentzia lor daitekeela erakutsi dute.

Aipatutako bi arkitektoek Pritzker 2010 saria irabazi dute duela gutxi. Sari hori Nobel Sariaren parekoa da arkitektoen artean .



## SANAA

*Serpentine Gallery* (2009)

*Casa Moriyama* (2002-2005)

Maquetas
Instalación. Cortesía de los autores

El techo flotante de aluminio del pabellón de la Serpentine Gallery crea un espacio exterior que proporciona una experiencia diferente dentro de la continuidad del parque.

La extensión de este elemento sirve de cubierta y envuelve los árboles circundantes. Su diseño a distintas alturas permite crear una mesa con una de las alas que desciende hasta casi rozar el suelo. Sin embargo, otras zonas se elevan y resguardan los espacios interiores del viento o de la lluvia intensa. Ambos lados de la cubierta son reflectantes, reflejando así el cielo por arriba y el parque por debajo.

*La Casa Moriyama* situada en una zona tradicional de Tokio, está compuesta por diez volúmenes independientes y cada uno responde a diferentes necesidades, creando una pequeña comunidad y un paisaje con su propia atmósfera.

SANAA nace en 1995 a partir de la iniciativa de sus dos componentes, Kazuyo Sejima y Ryue Nishizawa. Desde entonces han trabajado en numerosos proyectos arquitectónicos en todo el mundo, que se caracterizan por la búsqueda de soluciones adecuadas para cada entorno, aunque sin olvidar la experimentación. Así lo práctico encuentra la coherencia con la luz, las jerarquías de elementos y espacios, los movimientos, la continuidad o la rigidez.

Estos dos arquitectos acaban de ser galardonados con el Premio Pritzker 2010, el equivalente al Premio Nobel de los arquitectos.

-2. solairua

## AMA LURRA,
*Beste leku bat hasten da hemen*

**Lur Proiektuaren** izaera anitza agerian geratzen da, halaber, Fondation Cartier pour l´art contemporain-ek (Paris, Fratzia) antolatutako AMA LURRA, *Beste leku bat hasten da hemen* erakusketarekin egiten den alboratze/alderatzean. Azken erakusketa hori, gainera, AlhóndigaBilbao-n ikus daiteke egunotan.

Planta -2

## TIERRA NATAL,
*Otro lugar comienza aquí*

El carácter múltiple de **Proyecto Tierra** también se refleja en la yuxtaposición/contraposición con la exposición TIERRA NATAL, *Otro lugar comienza aquí* de la Fondation Cartier pour l´art contemporain (París, Francia) que también acoge en estas mismas fechas AlhóndigaBilbao.

## BISITA GIDATUAK IKASTETXEETARAKO

AlhóndigaBilbao-k erakusketa honetarako bisita gidatuak antolatzen ditu, interesa duten ikastetxe guztientzat. 8-12 urte bitartekoentzat zuzendua.

TALDE BAKOITZEAN GEHIENEKO IKASLE KOPURUA:
15

ORDUTEGIA:
10:00etatik 13:30era

IRAKASLEEN ALDEZ AURRETIKO BISITA:
**Alhóndiga**Bilbao-k erakusketa bisitatu nahi duten ikastetxe guztien eskura jartzen ditu langile espezializatuak eta erakusketarik buruzko mota orotako informazioa, bisita antolatzeko.

IZENA EMATEKO:
688 806 321 telefono-zenbakian, astelehenetik ostiralera 9:30etatik 13:30era

PREZIOA:
Dohainik

HIZKUNTZAK:
Euskara, gaztelania eta/edo ingelesa

## VISITAS GUIADAS PARA CENTROS ESCOLARES

AlhóndigaBilbao organiza visitas guiadas a esta exposición para todos los centros escolares que estén interesados. Dirigido a niños entre 8 y 12 años.

NÚMERO MÁXIMO DE ESCOLARES POR GRUPO:
15

HORARIO:
De 10:00 a 13:30

VISITA PREVIA AL PROFESORADO:
**Alhóndiga**Bilbao pone a disposición de los centros escolares interesados en visitar esta exposición, personal especializado para organizar la visita y proporcionar todo tipo de información relacionada con la exposición.

CÓMO APUNTARSE:
Llamando al 688 806 321, de lunes a viernes de 9:30 a 13:30

PRECIO:
Gratuito

IDIOMAS:
Euskera, castellano y/o inglés

## ARGITALPENAK
## LUR PROIEKTUA. KATALOGOA

**Lur Proiektuak** berezkoa duen bokazioa kontuan hartuta, eskaini nahi duen argitalpenarekin, ekimenaren barruko erakusketak deskribatzeaz eta elkarrizketa sustatzeaz haraindi doa. Proiektu-katalogo bat da, artea, zinema, arkitektura, soziologia eta zientzia bezalako esparruetan makina bat iradokizun egiten dituen liburu baten antzera osatua. Jatorri desberdineko egileen artean gogoeta emankorrak sustatu nahi dira, lau ardatz nagusiren inguruan: Landatzea (Lurra. Hizkuntza. Natura/Kultura. Bidaia. Gizakia/Animalia); Hitz egitea (Espazio publikoa. Esku-hartze soziala. Merkatua. Plaza. Frontoia); Eraikitzea (Artea/Arkitektura. Paisaia eta higadura. Iraunkortasuna. Hezkuntza) eta Bizitzea (Eskualde-maila/Globala. Barrualdea/Kanpoaldea. Etxekotasuna. Liburutegi amaigabea).

LUR PROIEKTUAREN KATALOGOAREN PREZIOA:
39,50 euro.

*Argitalpena **Alhóndiga**Bilbao-ko Erakusketa Aretoko sarreran dago salgai (-2. solairua).*

## PUBLICACIONES
## PROYECTO TIERRA. CATÁLOGO

**Proyecto Tierra** plantea una publicación que por su propia vocación, va más allá de la mera descripción expositiva e insaciable en el diálogo que esta iniciativa busca generar. Un catálogo proyectual, un libro con múltiples sugerencias desde el arte, el cine, la arquitectura, la sociología y la ciencia. Se abre así una reflexión fructífera entre creadores de procedencias diversas, bajo cuatro ejes: Plantar (Tierra. Lenguaje. Naturaleza/Cultura. Viaje. Hombre/Animal); Dialogar (Espacio público. Intervención social. Mercado. Plaza. Frontón); Construir (Arte/Arquitectura. Paisaje y erosión. Sostenibilidad. Educación) y Habitar (Regional/Global. Interior/Exterior. Domesticidad. Biblioteca infinita).

PRECIO CATÁLOGO PROYECTO TIERRA:
39,50 euros

*Esta publicación está a la venta en el vestíbulo de la Sala de Exposiciones de **Alhóndiga**Bilbao (Planta -2).*

**JENDAURREKO ORDUTEGIA**
Asteartetik ostiralerarte
10:00etatik 20:00etara
Larunbat, igande eta jai-egunetan
11:00etatik 21:00etara
Astelehenetan itxita, jai-egunetan izan ezik

**UDAKO ORDUTEGIA (UZTAILA/ABUZTUA)**
Astelehenetik igandera
11:00etatik 21:00etara

**SARRERAREN PREZIOA**
3 euro

**SARRERAREN PREZIOA hó TXARTELAREKIN**
2 euro

**HORARIO DE APERTURA**
De martes a viernes
De 10.00 a 20.00
Sábados, domingos y festivos
de 11:00 a 21:00
Lunes cerrado al público, excepto festivos

**HORARIO DE VERANO (JULIO/AGOSTO)**
De lunes a domingo
De 11.00 a 21.00

**PRECIO DE LA ENTRADA**
3 euros

**PRECIO DE LA ENTRADA CON TARJETA hó**
2 euros

**AUTOBUSA**
18/76

**METROA**
Indautxu, Urkixo kaleko irteera. Moyua, Aldundiko irteera

**APARKALEKUAK**
Alhóndiga, Indautxu, Zabalburu eta Miguel de Unamuno institutua

**GPS KOORDENATUAK**
43º15'35.09" I 2º56'13.32" M

**AUTOBÚS**
18/76

**METRO**
Indautxu, salida Urquijo. Moyua, salida Diputación

**PARKINGS**
Alhóndiga, Indautxu, Zabalburu e Instituto Miguel de Unamuno

**COORDENADAS GPS**
43º15'35.09" N 2º56'13.32" O

**GURE JARDUERETAN PARTE HARTZEKO LAGUNTZA TEKNIKORIK BEHAR BADUZU ETA BAITA, HOBETO ENTZUN NAHI BADUZU ERE, ESKATU LASAI. GUZTIONTZAKO GUNEA DA ALHÓNDIGABILBAO.**
SI NECESITAS ALGUNA AYUDA TÉCNICA QUE TE FACILITE EL ACCESO A NUESTRAS ACTIVIDADES, O PARA DISFRUTAR DE LA ACTIVIDAD CON MEJOR CAPACIDAD AUDITIVA, PÍDENOSLO. ALHÓNDIGABILBAO ES UN ESPACIO ACCESIBLE PARA TODAS LAS PERSONAS.

**Alhóndiga**Bilbao
www.alhondigabilbao.com | info@alhondigabilbao.com
T. 944 014 014

hó
AlhóndigaBilbao

LAGUNTZAILEAK
COLABORADORES

AIRFRANCE
erakus
Giroa Grupo DALKIA
RÉPUBLIQUE FRANÇAISE AMBASSADE DE FRANCE EN ESPAGNE SERVICE CULTUREL